- Tutua muntatzea: Tutua instalatzeko kontratuan modu independentean adieraziko dira BBUPen lerrorako eta PETRONORREN poliduktorako instalatu beharreko tutu kopuruak. Alderdi bakoitzak instalazioaren kostu erreala hartuko du bere gain, irismen bakoitzari dagozkion neurketetan eskainitako unitate prezioak aplikatuz.

- Montaje de tubería: El contrato de instalación de tubería indicará, de forma independiente, las cantidades de tubería a instalar para la línea del CABB y para el poliducto de PETRONOR. Cada parte asumirá el coste real de instalación, aplicando los precios unitarios ofertados a las mediciones correspondientes a cada alcance.

- Tutuak muntatzeko zuloak egiteari lotutako lanen zenbatekoa, esaterako zuinketa, ziriztatzea, traza irekitzea eta bide eskubidea, hondeaketa, lan zibilak, entibazioa, betelana, lehengoratzea, hondakinen kudeaketa, gurutzaketa bereziak eta abar, alderdi bakoitzak okupatutako zanga sekzioarekiko modu proportzionalean banatuko dira. Partekatutako trazaren sekzio tipoari dagokionez hasieran

- El importe de los trabajos asociados a la ejecución de las zanjas para el montaje de las tuberías, tales como replanteo, estaquillados, apertura de traza y derecho de vía, excavación, trabajos civiles, entibación, relleno, restitución, gestión de residuos de excavación, cruces especiales, etc., se repartirá proporcionalmente a la sección de zanja ocupada por cada parte. Inicialmente se estima, sobre una sección tipo

aurreikusi da BBUPi % 31 dagokiola, eta Petronorri % 69.

Banaketa koefizientea poliduktoaren neurketa errealetatik abiatuz berrikusiko da.

➢ Obrak egingo dituen enpresa adjudikaziodunarekin lortutako eraikuntza kontratuari lotutako kostu komunak alderdien artean banatuko dira adjudikatzeko obraren inbertsio errealarekiko modu proportzionalean.

➢ Poliduktoaren obrak egiteko hasieran aurreikusitako kostua, eta erreferentzia gisa hartuko dena kostuen banaketa definitu arte, proiektuaren eta obraren fasean datu errealak eman arte, 7.322.000 eurokoa izango da; hortik Petronorri 5.896.000 euroko kopurua dagokio (% 80,52) eta BBUPi 1.426.000 euroko kopurua dagokio (% 19,48).

➢ Egindako hodi berriei lotutako kostuak, erakundeei edo administrazioei ordaindu beharreko lizentziei, baimenei edo tasei dagokienez, modu independentean kudeatu eta ordainduko ditu alderdi bakoitzak. Zehazki, Muskiz eta Zierbenako udalekin egin beharreko izapideak Petronorrek kudeatuko ditu, bere jabetzako hodien obra lizentzia lortu eta horiek ordaintzeari dagokionez. BBUPen obrak obra lizentzia ordaindu beharretik salbuetsita daude, baina, obra modu bateratuan izapidetzean udalek obra lizentziaren kalkulua egitean obra osoa hartzen bada kontuan, BBUPen zatia baztertu gabe, orduan obrako lizentzia kostuak alderdien artean banatuko dira zerga oinarri aplikagarriarekiko modu proportzionalean.

➢ Hodiak muntatzeko obrak bertatik bertara kontrolatu eta gainbegiratzeko kanpo ingeniaritzaren kostuak alderdien artean banatuko dira, esleitutako obraren inbertsio errealarekiko modu proportzionalean. Lan hauen hasierako kostua 490.000 euro ingurukoa izatea aurreikusi da; kopuru

de la traza compartida, un coeficiente de 31% correspondiente a CABB y 69% a PETRONOR.

El coeficiente de reparto se revisará a partir de las mediciones reales del poliducto.

➢ Los costes comunes asociados al contrato de construcción con la empresa adjudicataria que ejecuta las obras, serán repartidos entre las partes proporcionalmente a la inversión real de obra adjudicada.

➢ El coste inicialmente estimado para la ejecución de las obras del poliducto y que servirá como punto de referencia para la definición del reparto de costes hasta la disposición de datos reales en fase de proyecto y de obra, es de 7.322.000 EUR, de los que corresponderían a Petronor 5.896.000 EUR (80,52%) y al CABB 1.426.000 EUR (19,48%).

➢ Los costes asociados a las nuevas conducciones ejecutadas, correspondientes a licencias, permisos o tasas a abonar a Organismos o Administraciones, serán gestionados y abonados, de manera independiente, por cada una de las partes. En particular, Petronor gestionará con los Ayuntamientos de Muskiz y Zierbena la licencia de obras correspondiente a las conducciones de su propiedad y el abono de la misma. Las obras del CABB están exentas de pago de licencia de obras, pero, en el caso de que, al tramitar la obra conjunta, el cálculo de la licencia de obras por parte de los ayuntamientos se considere sobre el total de la obra no excluyendo la parte del CABB, los costes de la licencia de obra serán repartidos entre las partes proporcionalmente a la base imponible aplicable.

➢ Los costes de Ingeniería externa para la supervisión y control a pie de obra del montaje de las conducciones se repartirán entre las partes proporcionalmente a la inversión real de obra adjudicada. Se estima un coste inicial de estos trabajos aproximado de 490.000 EUR, de los cuales corresponderán al CABB 95.452

horretatik BBUPi 95.452 euro dagozkio (% 19,48) eta Petronorri 394.548 euro (%80,52).

- Kostu guztiek aldez aurretik BBUPen eta Petronorren onarpena beharko dute; bestela ez dituzte haien gain hartuko.

(19,48%) EUR y a Petronor 394.548 (80,52%) EUR.

- La totalidad de los costes deberán contar con la aprobación previa de CABB y Petronor, en caso contrario no serán asumidos.

**HIRUGARRENA.-LURZORUAREN KUDEAKETA**

BBUPek eta Petronorrek, 1-A fasean idatziko den kasuan kasuko trazadura proiektuan, kasuan kasuko hodien obrek ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda definituko dute; bidenabar, obrak erabat eta zuzen egiteko beharrezko lursailak lortzeko izapideak modu independentean baina koordinatuan egingo dituzte; alderdi bakoitzak dagozkion kostuak hartu beharko ditu bere gain.

**TERCERA. - GESTIÓN DE SUELO**

El CABB y Petronor definirán, en su correspondiente proyecto de trazado, a redactar en la Fase 1-A, la relación de bienes y derechos afectados por las obras de sus respectivas conducciones, y realizarán, de manera independiente pero coordinada, los trámites necesarios para la disposición de los terrenos que exijan la correcta y total ejecución de las obras asociadas, debiendo asumir cada parte los costes resultantes.

**LAUGARRENA.- BAIMENAK**

Lehen klausulan ezarritakoari jarraituz, alderdi bakoitzari dagokio beharrezko baimen, autorizazio eta lizentzia oro lortzea, tarte indibidualean zein tarte komunean kasuan kasuko proiektuan beharrezkoak izango direnak.

Interpretazio zalantzak saiheste aldera, organismo bakoitzak, Petronorrek eta BBUPek, banaka egingo ditu kasuan kasuko prozedurak obrak egiteko beharrezko baimen oro lortzeko.

Alderdiek, hala eskatzen zaienean, kasuan kasuko erakundeen aurrean egin beharreko izapidetzeak egiteko lankidetza eskainiko diote elkarri.

**CUARTA. – AUTORIZACIONES**

En seguimiento de lo dispuesto en la Cláusula Primera, corresponderá, a cada una de las partes intervienes, la obtención de cuantos permisos, autorizaciones y licencias fuesen necesarios para la correcta y total ejecución de sus respectivos proyectos tanto en el Tramo Individual como en el Tramo Común.

En evitación de dudas interpretativas, cada organismo, Petronor y CABB, realizarán de manera individual y singular sus correspondientes procedimientos con el fin de obtener cuantas autorizaciones fuesen precisas para la ejecución de las obras.

Las partes se proporcionarán, cuando así se solicite, toda la colaboración razonable para las tramitaciones que fuese necesario realizar ante los diferentes organismos.

## BOSGARRENA.- OBRA ETA AHOLKULARITZA LANAK KONTRATATZEA

Aurreko klausuletan aurreikusitakoarekin bat etorriz, hurrengo faseetarako honako banaketa hau baliatuko da:

- **1-A Fasea:**

  Petronorren lana izango da kanpo ingeniaritzako zerbitzuak kontratatzea A+B+C+D tarteak eta A+C tarteen trazadura proiektua barne hartuko dituen kontsulta dokumentua idazteko (Petronorren beraren hodiei dagozkien hodiak).

  BBUPen lana izango da bere hodiei dagokien trazadura proiektua kontratatzea (B eta C tarteak).

- **1-B Fasea:**

  Petronorren lana izango da A+C+D tarteen eraikuntza proiektua idazteko kanpo ingeniaritza zerbitzuak kontratatzea, hodi guztiekin, baita beharrezkoak izan daitezkeen gaietan ingeniaritza osagarri espezializatuko zerbitzuak kontratatzea ere.

  BBUPen lana izango da B tarteari lotutako eraikuntza proiektua kontratatzea.

- **II. fasea:**

  Petronorren lana izango da tutua hornitzeko eta hodiak muntatu eta instalatzeari lotutako lanak kontratatzea, eraikuntza proiektuan definituko den irismenera arte.

  Bidenabar, Petronorren lana izango da obrak egitea gainbegiratzeko kanpo ingeniaritzako lanak kontratatzea, baita obrak egitean beharrezkoak izan daitezkeen ingeniaritza espezializatuko lanak kontratatzea ere.

## QUINTA. - CONTRATACIÓN DE TRABAJOS DE CONSULTORÍA Y OBRAS

De acuerdo con lo establecido en las cláusulas anteriores, para las distintas fases, queda establecido el siguiente reparto:

- **Fase 1-A:**

  Corresponderá a Petronor la contratación de los Servicios de la Ingeniería externa para la elaboración el Documento de Consultas que incluya los Tramos A+B+C+D y el proyecto de trazado de los tramos A+C( Conducciones correspondiente a las conducciones propias de Petronor.

  Corresponderá al CABB la contratación del proyecto de trazado correspondiente a sus conducciones (Tramos B y C).

- **Fase 1-B:**

  Corresponderá a Petronor la contratación de los Servicios de la Ingeniería externa para la redacción del Proyecto constructivo de los tramos A+C+D, con todas sus conducciones, así como los correspondientes a la Ingeniería complementaria especializada en las materias que resultase necesario.

  Corresponderá al CABB la contratación del proyecto constructivo asociado al Tramo B.

- **Fase II:**

  Corresponderá a Petronor la contratación del suministro de la tubería y los trabajos asociados al montaje e instalación de las mismas, hasta el alcance que se defina en el proyecto constructivo.

  Asimismo, corresponderá a Petronor la contratación de los trabajos de Ingeniería externa para la supervisión de la ejecución de las obras y los de ingeniería especializada que pudieran ser necesarios en el transcurso de la obra.

Petronor

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia

BBUPen lana izango da B tarteari lotutako obrak kontratatzea.

Corresponderá al CABB la contratación de las obras asociadas al denominado Tramo B.

**SEIGARRENA.- OBRAK ERAIKI ETA ZUZENTZEKOFINANTZAKETA**

**SEXTA. -FINANCIACIÓN DE LA DIRECCIÓN Y CONSTRUCCIÓN DE LAS OBRAS**

BBUPek eta Petronorrek obrak eraiki eta proiektuak idazteko finantzaketa konpromisoa modu bateratuan hartzen dute, aurreko ataletan ezarritako irizpideekin bat etorriz kasuan kasuko fase eta kontzeptuetan.

El CABB y Petronor asumen el compromiso de la financiación de la redacción de los proyectos y construcción de las obras de forma conjunta, de acuerdo con los criterios fijados en los apartados anteriores, para las distintas fases y conceptos.

Fase bakoitzerako kostu aurreikusiak eta ezarritako banaketa kontuan hartuz, honako inbertsio taula hau ondorioztatu da:

Considerando los costes estimados, para cada una de las fases, y el reparto establecido, resulta el siguiente cuadro de inversión:

| | KOSTUA GUZTIRA *COSTE TOTAL* | PETRONORRI DAGOKION KOSTUA *COSTE ASOCIADO PETRONOR* | BBUPi DAGOKION KOSTUA *COSTE ASOCIADO CABB* |
|---|---|---|---|
| IA FASEA *FASE IA* | | | |
| Proiektuak idazteko kanpo ingeniaritza zerbitzuak *Servicios ingeniería externa redacción Proyectos* | 208.483,00 € | 154.819,48 € | 53.663,52 € |
| Repsoleko Ingeniaritza Zuzendaritzako zerbitzua *Servicios Dirección de Ingeniería Repsol* | 221.940,00 € | 189.702,00 € | 32.238,00 € |
| **IA FASEA GUZTIRA *TOTAL FASE IA*** | **430.423,00 €** | **344.521,48 €** | **85.901,52 €** |
| F IB FASEA *ASE IB* | | | |
| Proiektuak idazteko kanpo ingeniaritza zerbitzuak *Servicios ingeniería externa redacción Proyecto* | 342.365,00 € | 275.672,30 € | 66.692,70 € |
| Repsoleko Ingeniaritza Zuzendaritzako zerbitzua *Servicios Dirección de Ingeniería Repsol* | 128.140,02 € | 103.178,35 € | 24.961,68 € |
| **IB FASEA GUZTIRA *TOTAL FASE IB*** | **470.505,02 €** | **378.850,64 €** | **91.654,38 €** |
| *II FASEA* FASE II | | | |
| Poliduktoa eraikitzea *Construcción poliducto* | 7.322.000,00 € | 5.896.000,00 € | 1.426.000,00 € |
| Obra gainbegiratzeko kanpo ingeniaritzako zerbitzua *Servicio de Ingeniería externa Supervisión de Obra* | 490.000,00 € | 394.548,00 € | 95.452,00 € |
| Repsoleko Ingeniaritza Zuzendaritzako zerbitzua *Servicios Dirección de Ingeniería Repsol* | 198.034,58 € | 159.457,44 € | 38.577,14 € |
| **II FASEA GUZTIRA *TOTAL FASE II*** | **8.010.034,58 €** | **6.450.005,44 €** | **1.560.029,14 €** |
| INBERTSIOA GUZTIRA *TOTAL INVERSIÓN* | **8.910.962,60 €** | **7.173.377,56 €** | **1.737.585,04 €** |

Islatutako zifrak, nolanahi ere, estimazioak dira, eta egokitu egingo dira lanek aurrera egiten duten neurrian, azkenean eratorritako balorazioekin.

Las cifras reflejadas son, en todos los casos, estimaciones que se irán ajustando, a medida que se avance en los trabajos, con las valoraciones que

finalmente resulten.

Hitzarmen honetan jasotako kopuru ekonomikoak, nolanahi ere, balorazioak dira (BEZik gabe).

Los importes económicos reflejados en el presente convenio corresponden, en todos los casos, a valoraciones ( IVA excluido).

Programazio estimatuarekin bat etorriz, hitzarmen honetan jasotako jarduketak 2021 eta 2024 artean garatuko dira, epe partzial hauekin:

De acuerdo con la programación estimada, las actuaciones incluidas en el presente convenio se desarrollarán entre 2021 y 2024, con los siguientes plazos parciales:

- IA fasea: Trazadura proiektua idazteko lana 2021eko martxoan hasiko da eta 2021eko abendura arte iraungo du.
- IB fasea: Eraikuntza proiektua idazteko lana 2022ko urtarrilean hasiko da eta 2022ko azarora arte iraungo du.
- II. fasea: Poliduktoa eraikitzea hartuko du barne, 2022ko abendutik 2024ko apirilera.

- Fase IA: De redacción del proyecto de trazado, comenzará en marzo de 2021 y finalizará en diciembre de 2021.
- Fase IB: De redacción del proyecto constructivo, comenzará en enero de 2022 y se prolongará noviembre de 2022.
- Fase II: Comprenderá la construcción del poliducto entre diciembre de 2022 y abril de 2024.

Aurreikusitako epe eta kostuen ondorioz, urtekoak honela banatu dira hainbat urtez:

Como resultado de los plazos previstos y costes estimados, la distribución plurianual de anualidades asociada es la siguiente:

| **URTEKO KUOTA** ***ANUALIDAD*** | **GUZTIRA** ***TOTAL*** | **PETRONOR** | **CABB** |
|---|---|---|---|
| **2021** | 430.423,00 € | 344.521,48 € | 85.901,52 € |
| **2022** | 941.683,53 € | 758.262,73 € | 183.420,80 € |
| **2023** | 5.654.142,06 € | 4.552.945,02 € | 1.101.197,04 € |
| **2024** | 1.884.714,02 € | 1.517.648,34 € | 367.065,68 € |
| **INBERTSIOA GUZTIRA** ***TOTAL INVERSIÓN*** | **8.910.962,60 €** | **7.173.377,56 €** | **1.737.585,04 €** |

Hori guztia ikusita, hitzarmenean parte hartzen duten alderdiek aurrekontu-gordailu nahikoak egin beharko dituzte nork bere gain hartutako betebehar ekonomikoei aurre egiteko.

A la vista de lo anterior cada una de las partes que intervienen en el Convenio se obligan a efectuar las consignaciones presupuestarias suficientes para hacer frente a las obligaciones económicas que contraen.

Proiektua idazteko lanak egitean edo obren kontratua garatzean sor daitezkeen gorabeherek aldaketak ekarriz gero edo kontratua garatzean egin beharreko jarduketak aldatzea ekarriz gero,

Las incidencias que se pudieran producir durante el desarrollo de los trabajos de redacción del proyecto o del contrato de obras y supusieran una modificación del mismo o las actuaciones a realizar

**ZORTZIGARRENA.- OBREN TITULARTASUNA, USTIAPENA ETA MANTENTZEA**

Hitzarmen honen xede diren obrekin egindako saneamendu hodien titulartasuna, Muskizko HUAtik datorren tutu tartearekin lotzen dena, BBUPi dagokio.

Obrekin egindako gainerako elementu eta instalazioen titulartasuna Petronorri dagokio.

C tartean azaldu den moduan, bi alderdien hodiak dagoeneko existitzen den Petronorren poliduktoaren zortasun zerrenda barruan egongo dira; horregatik, BBUPek tarte zehatz horretan mantentze edo ustiapenerako egin beharreko edozein jarduketa berariaz baimendu beharko du Petronorrek, eta inolaz ere ezingo die kalte egin Petronorren baldintzei, ez data horren aurretik zeuden baldintzei, ez hitzarmen hau dela bide egiten ari diren baldintzei, ez baldintza horien operatiboari.

Poliduktoan aurreikusita izan ditzakeen balizko mantentze lanetako jarduketetan Petronorrek BBUPekin koordinatzeko konpromisoa hartzen du, horri esker aipatutako mantentze lanak modu bateratuan hobetzea posible izanez gero.
C tarteko azalerako mantentze lanei lotutako lanak Petronorrek egingo ditu. BBUPek, Petronorrek horretarako aurretiaz aurkeztutako urteko aurrekontua onartu ondoren, % 7 ordainduko du. Desberdintasunak izanez gero, eta aldez aurretik justifikazioak eginez gero, hurrengo ekitaldian erregularizatuko dira.

Ordainketa egingo da BBUPen hustubideak Petronorren poliduktoko zortasun zona okupatzen duen bitartean.

**OCTAVA.- TITULARIDAD, EXPLOTACIÓN Y MANTENIMIENTO DE LAS OBRAS**

La titularidad de la conducción de saneamiento ejecutada con las obras objeto del presente Convenio y que conecta con el tramo de tubería procedente de la EDAR de Muskiz, corresponde al CABB.

La titularidad del resto de elementos e instalaciones ejecutados con las obras, corresponde a Petronor.

Tal y como ha quedado señalado en el Tramo C, las conducciones de ambas partes discurren dentro de la franja de servidumbre del poliducto ya existente , propiedad de Petronor, es por ello que cualquier actuación para el mantenimiento o la explotación que precise realizar CABB sobre este tramo concreto deberá ser expresamente autorizada por Petronor y, en ningún caso, podrá afectar a las condiciones de Petronor, prexistentes a esta fecha y en ejecución bajo este convenio, ni a su operativa .

Petronor se compromete a coordinar con la CABB las actuaciones de mantenimiento que pudieran tener previsto en el poliducto que permitan una optimización conjunta de dichos mantenimientos.
Las tareas asociadas al mantenimiento de la superficie correspondiente al tramo C , serán realizadas por Petronor. El CABB, previa aprobación del presupuesto anual presentado, a tal efecto, por Petronor, procera el abono del 7% del mismo. En caso de posibles diferencias , y previas las correspondientes justificaciones, se procederá a su regularización en el siguiente ejercicio .

Este abono será realizado durante el periodo de tiempo que permanezca vigente la ocupación de la zona de servidumbre del poliducto de Petronor por el emisario del CABB.

**BEDERATZIGARRENA.- JARRAIPEN BATZORDEA.**

Petronorrek obren egoeraren berri emango dio BBUPi ingeniaritza zuzendaritzako akordioaren

**NOVENA. - COMISION DE SEGUIMIENTO**

Petronor, a través del Acuerdo con Dirección de Ingeniería dará cuenta a CABB de la marcha del

bitartez, baita ohar garrantzitsuen berri ere, behin betiko ebatzi arte.

estado de las obras y de las vicisitudes de relevancia que afecten hasta su definitiva conclusión.

Hitzarmen honetan erabakitakoaren jarraipena egiteko Jarraipen Batzorde bat eratuko da. Batzorde hori lau pertsonek osatuko dute: BBUPen bi ordezkarik eta Petronorren beste bik.

Para el seguimiento de lo estipulado en el presente Convenio se creará una Comisión de Seguimiento que estará integrada por cuatro personas, dos por parte del CABB y dos por parte de Petronor.

Batzordearen xedea izango da hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean alderdien arten sortzen diren arazo teknikoak, ekonomikoak eta kolaboraziozkoak argitzea.

El cometido de la Comisión será el de dilucidar cuantas cuestiones técnicas, económicas y de colaboración entre las partes se susciten durante la vigencia del Convenio.

**HAMARGARRENA.- HITZARMENAREN ONDORIOAK ETA IRAUNALDIA**

**DECIMA.- EFECTOS Y DURACION DEL CONVENIO**

Hitzarmena bera sinatzen den unetik aurrera izango ditu hitzarmenak ondorioak eta alderdiak behartuko ditu; iraunaldiari dagokionez, lau urtekoa izango da.

El Convenio surtirá efecto y obligará a las partes intervinientes desde la fecha de su firma siendo su duración de 4 años.

**HAMAIKAGARRENA.- HITZARMENAREN IRAUNGIPENA**

**UNDECIMA. - EXTINCION DEL CONVENIO**

Hitzarmen hau aurreko klausulan jasotako indarraldia igarotzen denean edo kontratua indargabetzen denean iraungiko da.

El Convenio se extinguirá o bien por el transcurso del plazo de vigencia referida en la cláusula anterior o por resolución.

Alderdietako batek bere gain hartutako konpromisoak betetzen ez baditu, beste alderdiak hitzarmena zorrotz bete dadin edo iraungi dadin eskatu ahalko du.

El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a la otra a exigir su estricto cumplimiento o a solicitar su resolución.

Hitzarmena indargabetuz gero, alderdiek egikaritzeke dauden jarduketak ordaindu eta amaitzeko baldintzak zehaztuko dituzte.

En caso de resolución, las partes determinarán las condiciones para la finalización y pago de las actuaciones que se hallen en ejecución.

Bi alderdietako edozeinek, hitzarmena indarrean den bitartean, aurrera egiteari uko egiten badio, orduan bere gain hartu beharko ditu ordura arte egindako lanen kostuak; beste aldeak aukera izango du proiektuarekin aurrera egiteko, bere hodietan egiteke dauden lanei dagozkien kostuak bere gain hartuz.

Si alguna de las dos partes, durante el transcurso del convenio, desistiera de seguir adelante, deberá asumir los costes imputados por los trabajos desarrollados hasta esa fecha, pudiendo, la otra parte, seguir adelante con su proyecto, asumiendo los costes correspondientes a los trabajos pendientes de ejecución asignados a sus conducciones.

Petronorrek uko egiten badio, Petronorrek ez dio BBUPi eragozpenik jarriko hodi berria Petronorren zortasun zerrendan eta bere instalazioen barruan gara dezan; hala, hartuko den soluzioak bateragarria izan beharko du etorkizunean garatuko diren hodiekin eta Petronorrek ezarritako baldintzekin.

En caso de desistimiento por parte de Petronor, éste no pondrá impedimento al CABB para el desarrollo de la nueva conducción por su franja de servidumbre y dentro de sus instalaciones, debiendo la solución adoptada ser compatible con el desarrollo de futuras conducciones y con los condicionantes impuestos por Petronor.

**HAMABIGARRENA.- JURISDIKZIOA**

Kontratu hau bete, azkendu eta honen ondorioei lotuta sor daitezkeen gatazkak ebazteko eskudunak jurisdikzio zibileko auzitegiak izango dira, eta bi alderdiak haien borondatez Bilboko auzitegi eta epaitegien mende jarriko dira, egokitu ahal zaien beste edozein instantziari berariaz uko eginez.

**DUODÉCIMA – JURISDICCION**

Para resolver las cuestiones que se planteen en relación con los efectos, cumplimiento y extinción del presente Contrato, serán competentes los Tribunales de la Jurisdicción Civil, sometiéndose ambas partes voluntariamente al fuero de los Juzgados y Tribunales de Bilbao, con renuncia expresa a cualquier otro foro que pudiera corresponderles.

Azaldutakoarekin ados daudela adierazteko, agertutako bi alderdiek hitzarmenaren bi ale sinatu dituzte goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

Y en prueba de conformidad, lo firman los dos comparecientes, por duplicado ejemplar, en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento.

Jose Gregorio Luque Gonzalez
**Petróleos del Norte S.A.**
Kontseilari delegatua
Consejero Delegado

Kepa Odriozola Azula
**Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoko Presidentea**
Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko presidentea.
Presidente del Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia

# ANEXO 1 - PLANO




Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia

Petronor

Zerbitzu Teknikoak
Saneamenduko Proiektu eta Obren Zuzendaritza

Servicios Técnicos
Subdirección de Proyectos y Obras de Saneamiento

| Proiektuaren egilea / Autor del proyecto | Proiektuaren zuzendaria / Director del proyecto | Eskalak / Escalas | Proiektuaren izenburua / Título del proyecto | Data / Fecha | Planoaren izenburua / Título del plano | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Izp./Fdo.: Nombre Titulación | Izp./Fdo.: Nombre Titulación | 1: 7500 Originalak / Originales; −100 0 100 200 300 m. Grafikoa / Gráfica | CONDUCCIÓN DE VERTIDO A MAR DE LA EDAR DE MUSKIZ DEL CABB – POLIDUCTO PETRONOR HUB PUERTO DE BILBAO | ABRIL – 2021 | PLANTA GENERAL DEFINICIÓN DE TRAMOS | 000-S-21 P-0101 |